

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Fontechako Kontzejua

Concejo de Fontecha

2018





AURKIBIDEA / ÍNDICE

| | |
|---|----|
| LABURDURAK..... | 5 |
| I. SARRERA..... | 7 |
| II. ONDORIOAK..... | 8 |
| III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI | |
| BURUZKO IRIZPENAK | 9 |
| III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea | 9 |
| III.2 Diru-sarrerak..... | 9 |
| III.3 Kontratazioa..... | 9 |
| III.4 Beste alderdi batzuk | 9 |
| IV. KONTUEN LIBURUA | 11 |
| ERANSKINAK | 13 |
| A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera..... | 13 |
| A.2 Kontabilitatea eta aurrekontuak | 13 |
| A.3 Tasak eta bestelako sarrerak | 14 |
| A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak | 15 |
| A.5 Ondare-sarrerak..... | 15 |
| A.6 Zorpetzea | 16 |
| A.7 Ondasun arrunt eta zerbitzu eta inbertsioen kontratazioa..... | 16 |
| A.8 Ondarea | 17 |



| | |
|--|----|
| ABREVIATURAS | 19 |
| I. INTRODUCCIÓN | 21 |
| II. CONCLUSIONES | 22 |
| III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN..... | 23 |
| III.1 Presupuesto y contabilidad | 23 |
| III.2 Ingresos..... | 23 |
| III.3 Contratación | 23 |
| III.4 Otros aspectos..... | 23 |
| IV. LIBRO DE CUENTAS..... | 25 |
| ANEXOS | 27 |
| A.1 Naturaleza del ente fiscalizado..... | 27 |
| A.2 Contabilidad y presupuestos..... | 27 |
| A.3 Tasas y otros ingresos | 28 |
| A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones | 29 |
| A.5 Ingresos patrimoniales | 29 |
| A.6 Endeudamiento | 30 |
| A.7 Compras de bienes corrientes y servicios e inversiones..... | 30 |
| A.8 Patrimonio..... | 31 |

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 7a
Vitoria-Gasteiz, a 7 de octubre de 2020



LABURDURAK

- 2/2016 Legea 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 3/2004 FA 3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
- 56/2015 FD 56/2015 Foru Dekretua, azaroaren 3ko Diputatuen Kontseiluarena, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onartzen duena.
- AFA Arabako Foru Aldundia.
- ALH Arabako Lurralde Historikoa.
- ALHAO Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala.
- AO Administrazio Orokorra.
- EAE Euskal Autonomia Erkidegoa.
- FFFEL Arabako Toki-erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa.
- HHS Hiri-hondakin solidoak.
- TAOAL 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena.





Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Fontechako Kontzejuaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: ezargarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zuzenbide publikoko diru-sarrerak eta obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak.
- Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztaketak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontuak ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. AFAk eskatutako kontuen eredu-orriak ekitaldiko kobrantzen eta ordainketen laburpena egiten du eta urte hasieran eta amaieran duen diruzaintzaren eta zorpetzearen berri ematen.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Alabaina, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak Txosten honen III. Idazpuruan aztertu ditugu.

Fontechako Kontzejuak 2018ko urtarrilaren 1ean 112 biztanle ditu eta Lantarongo udalerrian dago kokatua, Añanako Kuadrillan (ikus A.1).

II. ONDORIOAK

1. Kontzejuak ez zuen 2018rako aurrekontua egin. Toki entitateen aurrekontuko araudiak (3/2004 FA) agintzen du Aurrekontu bat onartu behar dela eta jarduera ekonomikoa aurrekontuaren aurreikuspenetara egokituko dela; gainera, Urteko kontuetan aurrekontuaren likidazioa jasoko da.
2. 2018ko ekitaldian argindarra hornitzeagatik 38.687 euroren kobrantzak erregistratu ziren (ikus A.3); alabaina, ez dago diru-sarrera horiek arautuko dituen ordenantzarik, ez tarifak onartzen dituen erabakirik ere. Egindako irakurketen informazioa ere ez da eskuratu.
3. Fontechako Kontzejuaren Kontuen liburuak, AFAk Kontzejuen esku jarritako eredu-orriaren arabera egindakoak, ez du 2018ko abenduaren 31n ordaintzeko dauden saldoen berri ematen, 115.499 euroren zenbatekoan (ikus A.7).
4. Fontechako Kontzejuko auzotarren batzordeak 2017ko otsailaren 5ean egindako bileran onartu zuen ongizateko fundazio pribatu batek egindako proposamena, zeinaren arabera 70.000 euroan aurrekontu egindako gastu judizialei aurre egitea bere gain hartuko zuen trukean Fontechako 2. poligonoko 7. finka –Errege kalea, 21 zk. modura jasoak Kontzejuari esleituz gero; ez dago, baina, kontraprestazio horren egokitasuna ondorioztatzeko bide emango duen peritu-baloraziorik. Azkenik, Kontzejuak ordaindutako gastu juridikoak 65.151 eurorenak izan ziren (ikus A.8).
5. Administrazio Batzordeak erabaki zuen erregidore-presidenteak Kontzejuari 30.000 euro aurreratuko zizkiola, likidezia ezaren eta adierazitako gastu judizialei aurre egiteko beharraren ondorioz. Aurrerakina gauzatu zen eragiketa euskarrituko zuen kontratu edo agiririk batere izenpetu gabe, aipatutako erabakia baizik ez (ikus A.6).
6. Nahiz 2018ko itxieran Kontzejuaren zorpetze-bolumenak gainditu sarrera arrunten ehuneko ehun eta hamar, ez zen kapital bizia murrizteko nahitaezko plana onartu, bost urteko gehieneko epean zorraren bolumena zuzenduko zuena (2018ko urterako ALHko Aurrekontuaren egikaritzari buruzko abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauaren 4. xedapen gehigarria).



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan azpimarratu dira bai ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duten printzipioak betetzeari gehiegi eragiten ez dioten akatsak, bai kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Urteko Kontuak onartu ziren kontu-hartzailetza organoaren nahitaezko txostenak izan gabe eta ez ziren egin merkataritzako zorraren ordainketa-epeak betetzeari buruzko hiruhileko txostenak. Ezargarria zaion araudiaren arabera, Kontzejuaren legezko aholkularitza eta kontu-hartzailetzako egitekoak Lantarongo Udaleko karrerako funtzionario batek bete behar ditu (martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua, Estatuan jarduteko gaitzuntza duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa ezartzen duena).
- Kontzejuak egindako Kontuen Liburuak ez du bere jabetzako banku-kontu bati buruzko informaziorik ematen, 2018ko abenduaren 31n 1.578 euroren saldoa zuena.

III.2 TASEK ERAGINDAKO DIRU-SARRERAK

- Kontzejuak ez ditu aplikatzen ur-hornidura eta saneamendu kontzeptuko tasa arautzen duen ordenantza fiskalean jasotako tarifak. Soil-soilik zerbitzuaren kuota finkoak fakturatzen ditu eta ez metro kuboen arabera kontsumoko kuota (ikus A.3).

III.3 KONTRATAZIOA

- Kontzejuak ez du kontratatzailearen profila internet bidez zabaltu, ez eta lizitazioen deialdiari eta horren emaitzari buruzko informaziorik argitaratu ere Sektore Publikoko Kontratazioaren Plataforman.
- Kontzejuak egindako gastuak berrikustean ikusi dugu zuzenean esleitu dela gasaren hornidura, 39.822 euroren zenbatekoan (ikus A.7); ordea, prozedura ireki erraztu laburtu bidez kontratatu behar zatekeen.

III.4 BESTE ALDERDI BATZUK

Gardentasuna

- Kontzejuak bere edo Lantarongo Udalaren webgune edo egoitza elektronikoko bitartez hainbat informazio zabaltu behar luke, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, eskatutakoa.



Inbentarioa

- Kontzejuaren inbentarioa ez da gaurkotu 2002ko urtean formulatu zenez geroztik (ikus A.8).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. KONTUEN LIBURUA

| 2018KO EKITALDIKO SARRERAK ETA GASTUAK | | Euroak milakotan | |
|--|-----------|------------------|--|
| DIRU-SARRERAK | ERANSKINA | KOBARAN. | |
| 3.- Tasak eta bestelako sarrerak | A.3 | 41 | |
| 4.- Transferentziak eta dirulaguntza arruntak..... | A.4 | 119 | |
| 5.- Ondare sarrerak | A.5 | 17 | |
| 7.- Kapital transferentziak eta dirulaguntzak | A.4 | 244 | |
| 9.-Pasibo finantzarioak | A.6 | 80 | |
| AURREKONTUKO KOBRANTZAK GUZTIRA | | 501 | |
| Aurrekontukoak ez diren beste kobrantza batzuk | | 5 | |
| KOBRANTZAK GUZTIRA | | 506 | |

| | | Euroak milakotan | |
|--|-----------|------------------|--|
| GASTUAK | ERANSKINA | ORDAINK. | |
| 2.- Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa | A.7 | 78 | |
| 3.- Finantza gastuak | | 2 | |
| 6.- Inbertsio errealak..... | A.7 | 524 | |
| AURREKONTUKO ORDAINKETAK GUZTIRA | | 604 | |
| Aurrekontukoak ez diren beste ordainketa batzuk | | 7 | |
| ORDAINKETAK GUZTIRA | | 611 | |
| KOBRANTZAK - ORDAINKETAK | | (105) | |

| DIRUZAINZAREN BILAKAERA | Euroak milakotan | |
|--------------------------------|------------------|--|
| DIRUZAINZTA 2018.12.31n..... | 173 | |
| Kobrantzak - Ordainketak | (105) | |
| DIRUZAINZTA 2018.12.31n | 68 | |

| ZORPETZEA | Euroak milakotan | |
|------------------------------|------------------|-----------|
| ZORPETZEA 2018/12/31N | A.5 | 80 |





ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA

Fontechako Kontzejua udalaz azpiko toki entitate bat da eta oinarritzko alderdietan TAOALek eta 2/2016 Legeak arautzen dute eta Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko 11/1995 FAK.

Aipatutako araudian xedatutakoaren arabera, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuek euren ondarea kudeatzen dute eta euren barrutian zenbait udal zerbitzu ematen dituzte. Fontecharen kasuan, Toki-erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa banatzeko moldean aintzatetsitako zortzi zerbitzuetatik bi (HHSen bilketa eta uraren klorazioa) Añanako Kuadrillak ematen ditu eta gainerakoak (ur-hornidura eta bideratzea, saneamendua, argiteria, hilerria eta gizarte zentroa) Kontzejuko Administrazio Batzordeak.

Kontzejua, gainera, hiriguneko kaleen eta landa bideen titularra da eta zenbait eraikinen jabetza du; baita, uraren hornidura eta saneamendu-sareena eta sare elektrikoarena.

Kontzejuko gobernu-organoak dira: Auzotarren Batzordea, erregidore-presidentea eta Administrazio Batzordea. Auzotarren batzordea osatzen dute adin nagusiko herritarrek eta Administrazio Batzordea, berriz, lau urtean behin hautatutako erregidore-presidenteak eta bi bokalek. Kontzejuek, gainera, fede-emaile bat du.

A.2 KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK

Izaera orokorrarekin ALHko toki erakundeei ezargarria zaien kontularitzako foru araudia kontzejuei ere ezargarria zaie, 3/2004 FA eta 56/2015 FD nagusiki. Aipatutako arauetarik lehenengoak aurreikusten du kontzejuen kontularitzako araubidea erraztuko duen araudi bat garatzea, baina ez da halakorik oraindik egin.

Gainera, martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak, Lurralde Historikoko kontzejuei buruzkoak 40. artikuluan agintzen du Arabako toki entitate txikien urteko kontuen mugimenduak Kontuen Liburu batean jaso behar direla, eredu ofizialean eta behar bezala izapidetuak.

Kontzejuaren Kontuen Liburua Auzotarren Batzordeak 2018ko martxoaren 22an onartu zuen.

A.3 TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2018ko ekitaldian tasa eta beste diru-sarrera batzuen diru-bilketaren xehakapena:

| | Euroak milakotan |
|--|-------------------|
| KONTZEPTUA | Zenbatekoa |
| Etxera edateko ura hornitzeagatiko eta saneamenduko tasa | 2 |
| Energia elektrikoaren hornidura (*)..... | 39 |
| TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA | 41 |

(*) Kontzejuak, sarearen jabe den aldetik, energia elektrikoa hornitzen die auzotarrei.

Etxera edateko ura hornitzeagatiko tasa eta saneamendu-tasa arautzen duen zerga-ordenantza hasiera batean Kontzejuko Batzordeak onartu zuen 2016ko azaroaren 27an egindako bilkuran eta jendaurrean jartzeko izapidea erreklamaziorik jaso gabe bete ondoren, behin betiko onartutako ordenantza 2017ko urtarrilaren 25eko ALHAOn argitaratu zen.

Hona hemen aipatu ordenantzari jasotako urteko tarifak:

| | HORNIDURA | | SANEAMENDUA |
|--------------------------------|-------------------------|-------------------------|-------------|
| | Etxerako | Industriarako | |
| Zerbitzuen kuota finkoa | 20 euro | 20 euro | 20 euro |
| Kontsumo-kuota: | | | |
| 100 metro kubora arte..... | 0,1 euro/m ³ | 0,1 euro/m ³ | |
| 100dik 200 metro kubora | 0,5 euro/m ³ | 0,2 euro/m ³ | |
| 200 metro kubotik aurrera..... | 1 euro/m ³ | 1 euro/m ³ | |



A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen 2018an transferentziek eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoek eragindako sarrerak:

| KONTZEPTUA | Euroak milakotan | |
|--|------------------|-------------|
| | ARRUNT. | KAPITALEZK. |
| EAErenak | - | 78 |
| AO: Eguneko zentroa eraikitzea (*)..... | - | 78 |
| ALHrenak | 20 | 166 |
| AFA: Zerga itunduetan partaidetza FFFEL | 20 | - |
| AFA: Teilatua eta ekipam. 2. poligonoko 7. finka, Errege kalea, 21 eta beste (**)... | - | 150 |
| AFA: Bidezidorrak 2018 | - | 16 |
| Udalerrikoak: | 99 | - |
| Lantarongo Udala: 2. poligonoko 7. finka, Errege kalea, 21 urbanizatzea (**)..... | 40 | - |
| Lantarongo Udala: 2. poligonoko 7. finka, Errege kalea, 21 hornitzea (**)..... | 20 | - |
| Lantarongo Udala: funtzionamendu gastuak eta obra txikiak 2018 | 39 | - |
| GUZTIRA | 119 | 244 |

(*) EAEko Aurrekontu Orokorretan 2017ko ekitaldirako bereizitako dirulaguntza izendunari dagokion azken ordainketa, 400.000 euroren zenbatekoan (ikus A.7).

(**) Dirulaguntza izendunak.

A.5 ONDARE-SARRERAK

Kontzejuaren ondareak honako diru-sarrera hauek eragin zituen 2018an:

| KONTZEPTUA | Euroak milakotan | |
|---|------------------|--|
| | Zenbatekoa | |
| 3 etxebizitza eta 2 finken alokairua..... | 11 | |
| Ehiza-barruti pribatuaren ehiza ustiapena | 3 | |
| Gizarte zentr. kudeaketa eta gizarte zentroko frontoia, txokoa eta taberna ustiatzea..... | 2 | |
| Beste txiki batzuk | 1 | |
| ONDARE SARRERAK GUZTIRA | 17 | |



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.6 ZORPETZEA

Zorraren bilakaera ekitaldian honakoa izan da:

| Euroak milakotan | | | | | | |
|--------------------------------------|-------------------------|---------|----------|--------|-----------|-----------|
| | % interesa | Epemuga | Saldoa | | Saldoa | |
| | | | 18/01/01 | Amort. | Berriak | 18/12/31 |
| Kutxabank SA..... | Euriborra 1 urte + 0,84 | 2028 | - | - | 50 | 50 |
| Erregidore-Presidentea..... | % 0 | - | - | - | 30 | 30 |
| ERABILITAKO ZORPETZEA GUZTIRA | | | - | - | 80 | 80 |

Kontzejuak 2018ko urtarrilean jaso zuen Erregidore-Presidentearen mailegua, itzultzeko eperik batere zehaztu gabe. Adierazitako datatik bi urte igaroak zirela, itzulketa gauzatu gabe zegoen.

A.7 ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

Hona hemen Kontzejuko gastuen 2. kapituluaren xehakapena:

| Euroak milakotan | |
|---|-----------|
| KONTZEPTUA | Gastua |
| Gas naturalaren hornidura | 40 |
| Herriko jaien ospakizunei lotutako gastuak | 7 |
| Añanako Kuadrillak emandako zerbitzuak..... | 4 |
| Fede-emailearen, argi-tasaren kobratzailearen eta garbitzailearen ordainsariak..... | 4 |
| Gastu juridikoak..... | 3 |
| Beste txiki batzuk..... | 20 |
| GUZTIRA | 78 |

Inbertsioak

Hona hemen 2018ko inbertsioen xehakapena:

| Euroak milakotan | |
|---|------------|
| KONTZEPTUA | Gastua |
| Eguneko zentroa eraikitzea | 298 |
| 2. poligonoko 7. finka, Errege kalea, 21 urbanizatzea (*) | 40 |
| 2. poligonoko 7. finka, Errege kalea, 21 eraikineko teilatuak..... | 39 |
| Zerbitzu juridikoak | 32 |
| Traktorearen erosketa | 21 |
| 2. poligonoko 7. finka, Errege kalea, 21 eraikina hornitzea (*) | 20 |
| Beste txiki batzuk..... | 74 |
| GUZTIRA | 524 |

(*) Lantarongo Udalaren dirulaguntza bidez finantzatutako gastua (ikus A.4).

Atxikitako taulan ageri diren eguneko zentroa eraikitzeko gastuak obra nagusiari dagozkie, Auzotarren Batzordeak 2017ko abuztuaren 17an esleitu zuenari; obra horren egikaritze-gastua guztira 437.867 izan zen eta horren zati bat, 140.088 eurorena, jada 2017an

erregistratu zen. Aipatutako eraikuntza finantzatzeko Kontzejuak 400.000 euroren dirulaguntza izenduna jaso zuen Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politika Sailetik, EAEren 2017ko ekitaldirako aurrekontu orokorretan esleitutakoa (ikus A.4).

Zorpetu eta erregistratu gabeko gastuak

2018ko abenduaren 31n ordaintzeko eta erregistratzeko gastu zorpetuak zeuden, 115.499 euroren zenbatekoan, honako xehakapen honen arabera:

| Euroak milakotan | |
|---|------------|
| KONTZEPTUA | Gastua |
| 2018ko gastu txikiak: Paraguelako ibilbidea | 20 |
| Bidezidorrak 2018: Mendiko kalean lanak..... | 14 |
| Argiteria publiko eta elementu elektrikoko lineak..... | 30 |
| 2. poligonoko 7. finka, Errege kalea, 21 eraikina ekipatzea | 51 |
| GUZTIRA | 115 |

A.8 ONDAREA

Kontzejuak 2002an ondasunen inbentario bat egin zuen, baloratu gabea, urriaren 31n onartu eta jendaurrean jarri zena urte bereko azaroaren 30eko ALHAOn iragarkia argitara emanda.

Inbentario hori ez da gerora eguneratu. Fiskalizazio-gai izan den ekitaldia soilik aintzat hartuta, eguneko zentroa eraikitzen amaitu da (ikus A.7) eta finka bat erosi da (ikus hurrengo paragrafoak); ordea, adierazitako ondasun horietarik bat ere ez dago inbentarioan jaso.


Fontechako 2. poligonoko 7. finka erostea, Errege kalea, 21 modura jaso

2003ko urtean, ongizateko fundazio partikular batek 4 finka saldu zizkion merkataritzako sozietate bati, trukean diru-kopuru bat eskudirutan eta Fontechan fundazioak hautatutako toki batean adinekoentzako egoitza bat eraikitzekotan.

Krisi ekonomikoaren ondorioz, merkataritzako sozietateak ez zuen hitzartutako obra egin eta finkak itzultzeko fundazioak egindako errekerimenduari uko egin zion, ez-betetzea bere borondatez besteko kausengatik gertatu zela adieraziaz.

Fundazioak auzitegietara jo zuen finken itzulketa behartzeko, nahiz ez zuen baliabiderik prozeduraren kostuari aurre egiteko. Fontechako Kontzejuko Auzotarren Batzordeak 2017ko otsailaren 5ean egindako bileran onartu zuen gastu judizialei aurre egiteko fundazioak egindako proposamena, 70.000 euroren aurrekontua zuena, trukean Fontechako 2. poligonoko 7. finka –Errege kalea, 21 zk. modura jaso- Kontzejuari esleituz gero.

Azkenik, Kontzejuak ordaindutako gastu juridikoak 65.151 euro izan ziren eta 2018ko martxoaren 1ean zorra aitortzeko eta ordainean emateko eskritura bidez, Fundazioak aurrez adierazitako finkaren jabari osoa Fontechako Administrazio Batzordeari laga eta eskualdatu zion.



10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010



ABREVIATURAS

| | |
|------------|--|
| AG | Administración General. |
| BOTHA | Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava. |
| CAPV | Comunidad Autónoma del País Vasco. |
| DF 56/2015 | Decreto Foral 56/2015, del Consejo de Diputados de 3 de noviembre, que aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales del Territorio Histórico de Álava. |
| DFA | Diputación Foral de Álava. |
| FFFEL | Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de Álava. |
| Ley 2/2016 | Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. |
| LRBRL | Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local. |
| NF 3/2004 | Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava. |
| RSU | Residuos Sólidos Urbanos. |
| THA | Territorio Histórico de Álava. |





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General de 2018 del Concejo de Fontecha.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público y contratación de obras, servicios y suministros. Dicha revisión comprende el ejercicio fiscalizado, sin perjuicio de las comprobaciones relativas a otros ejercicios que se estimen necesarias, por tener incidencia en el fiscalizado.
- Contabilidad: conformidad de las Cuentas con los principios contables que le son aplicables. El modelo de cuentas exigido por la DFA se limita a resumir los cobros y pagos del ejercicio y dar cuenta de la tesorería y endeudamiento a inicio y final del año.
- El alcance del trabajo no ha incluido un análisis específico sobre la eficacia y eficiencia del gasto, ni sobre los procedimientos de gestión. No obstante, los aspectos parciales que han surgido en la fiscalización están comentados en el epígrafe III de este Informe.

El Concejo de Fontecha, con una población de 112 habitantes a 1 de enero de 2018, se encuentra incardinado dentro del municipio de Lantarón, que forma parte de la Cuadrilla de Añana (ver A.1).

II. CONCLUSIONES

1. El Concejo no elaboró un presupuesto para 2018. La normativa presupuestaria de entidades locales (NF 3/2004) exige la aprobación de un Presupuesto y la consecuente sujeción de la actividad económica a sus previsiones, incluyendo en las Cuentas anuales una liquidación del mismo.
2. En el ejercicio 2018 se registraron cobros por suministro de energía eléctrica por 38.687 euros (ver A.3), sin que exista una ordenanza que regule estos ingresos ni conste acuerdo de aprobación de las tarifas. Tampoco se ha obtenido información de las lecturas realizadas.
3. El Libro de Cuentas, confeccionado por el Concejo de Fontecha según el modelo que la DFA pone a disposición de los Concejos, no informa de los saldos pendientes de pago a 31 de diciembre de 2018, por 115.499 euros (ver A.7).
4. La Asamblea Vecinal del Concejo de Fontecha, en reunión celebrada el 5 de febrero de 2017, aceptó la propuesta de una fundación privada de beneficencia de hacer frente a gastos judiciales, presupuestados en 70.000 euros, a cambio de la adjudicación al Concejo de la parcela 7 del polígono 2 de Fontecha, señalada como calle Real nº 21, sin que conste valoración pericial que permita concluir sobre la suficiencia de dicha contraprestación. Finalmente los gastos jurídicos abonados por el Concejo ascendieron a 65.151 euros (ver A.8).
5. La Junta administrativa acordó que el Regidor-Presidente adelantara al Concejo 30.000 euros, dada la falta de liquidez y la premura por hacer frente a los indicados gastos judiciales. El adelanto se hizo efectivo sin que se suscribiera contrato o documento alguno que sustentase la operación, más allá del mencionado acuerdo (ver A.6).
6. A pesar de superar el volumen de endeudamiento del Concejo al cierre del ejercicio 2018 el ciento diez por cien de los ingresos corrientes, no se aprobó el preceptivo plan de reducción del capital vivo para corregir, en un plazo máximo de cinco años, el volumen de la deuda (Disposición Adicional 4ª de la Norma Foral 21/2017, de 22 de diciembre, de Ejecución del Presupuesto del THA para el año 2018).



III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN

En este apartado se señalan tanto las deficiencias que no afectan de manera relevante al cumplimiento de los principios que rigen la actividad económico-financiera, como aspectos procedimentales que se comentan para la mejora de la gestión.

III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD

- Las Cuentas anuales se aprobaron sin los preceptivos informes del órgano interventor y no se elaboraron los informes trimestrales sobre el cumplimiento de los plazos de pago de la deuda comercial. De acuerdo con la normativa de aplicación, las funciones de asesoramiento legal e intervención en el Concejo deben ser ejercidas por un funcionario de carrera del Ayuntamiento de Lantarón (Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional).
- El Libro de Cuentas confeccionado por el Concejo no incluye información sobre una cuenta bancaria de su titularidad, con un saldo de 1.578 euros a 31 de diciembre de 2018.

III.2 INGRESOS POR TASAS

- El Concejo no aplica las tarifas recogidas en la ordenanza fiscal reguladora de la tasa por suministro de agua y saneamiento. Se facturan únicamente las cuotas fijas de servicio y no las cuotas de consumo en función de los metros cúbicos (ver A.3).

III.3 CONTRATACIÓN

- El Concejo no difunde su perfil de contratante a través de internet, ni publica información sobre la convocatoria de licitaciones y sus resultados en la Plataforma de Contratación del Sector Público.
- En la revisión de gastos realizados por el Concejo, se detecta la adjudicación directa del suministro de gas, por 39.822 euros (ver A.7), que procedía contratar mediante procedimiento abierto simplificado abreviado.

III.4 OTROS ASPECTOS

Transparencia

- El Concejo debería difundir a través de página web o sede electrónica, propia o del Ayuntamiento de Lantarón, determinada información requerida por la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.



Inventario

- El inventario del Concejo no ha sido objeto de actualización desde su formulación en el año 2002 (ver A.8).



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. LIBRO DE CUENTAS

| INGRESOS Y GASTOS DEL EJERCICIO 2018 | | Miles de euros |
|--|-------|----------------|
| INGRESOS | ANEXO | COBROS |
| 3.- Tasas y otros ingresos..... | A.3 | 41 |
| 4.- Transferencias y subvenciones corrientes | A.4 | 119 |
| 5.- Ingresos patrimoniales..... | A.5 | 17 |
| 7.- Transferencias y subvenciones de capital | A.4 | 244 |
| 9.- Pasivos financieros..... | A.6 | 80 |
| TOTAL COBROS PRESUPUESTARIOS | | 501 |
| Otros cobros no presupuestarios..... | | 5 |
| TOTAL COBROS | | 506 |

| | | Miles de euros |
|--|-------|----------------|
| GASTOS | ANEXO | PAGOS |
| 2.- Compras de bienes corrientes y servicios | A.7 | 78 |
| 3.- Gastos financieros | | 2 |
| 6.- Inversiones reales | A.7 | 524 |
| TOTAL PAGOS PRESUPUESTARIOS | | 604 |
| Otros pagos no presupuestarios..... | | 7 |
| TOTAL PAGOS | | 611 |
| COBROS - PAGOS | | (105) |

| EVOLUCION DE TESORERÍA | Miles de euros |
|-------------------------------|----------------|
| Tesorería a 1.1.2018..... | 173 |
| Cobros- Pagos | (105) |
| TESORERÍA A 31.12.2018 | 68 |

| ENDEUDAMIENTO | Miles de euros |
|-----------------------------------|----------------|
| ENDEUDAMIENTO A 31.12.2018 | A.5 80 |





ANEXOS

A.1 NATURALEZA DEL ENTE FISCALIZADO

El Concejo de Fontecha es una entidad local de ámbito inferior al municipio regulada en sus aspectos básicos por la LRBRL y por la Ley 2/2016, así como por la Norma Foral 11/1995, de 20 de marzo, de Concejos del Territorio Histórico de Álava.

De acuerdo con lo dispuesto en la mencionada normativa, los concejos del Territorio Histórico de Álava gestionan su patrimonio y prestan algunos servicios municipales en su demarcación. Por lo que respecta a Fontecha, de los ocho servicios considerados en el modelo de distribución del FFFEL, dos (recogida de RSU y cloración de agua) son prestados por la Cuadrilla de Añana y el resto (abastecimiento y conducción de aguas, saneamiento, alumbrado, cementerio y centro social) por la Junta Administrativa del Concejo.

Además el Concejo es el titular de las calles del núcleo urbano y de los caminos rurales y ostenta la propiedad de diversos inmuebles, así como de las redes de abastecimiento y saneamiento de agua y la red eléctrica.

Los órganos de gobierno del Concejo son la Asamblea Vecinal, el Regidor-Presidente y la Junta Administrativa. La Asamblea Vecinal está constituida por todos los vecinos mayores de edad del término concejil y la Junta Administrativa por el Regidor-Presidente y dos vocales, elegidos cada 4 años. El Concejo cuenta, además, con un Fiel de Fechos.

A.2 CONTABILIDAD Y PRESUPUESTOS

La normativa contable foral aplicable con carácter general a las entidades locales del THA es también de aplicación a los concejos, básicamente la NF 3/2004 y el DF 56/2015. La primera de las indicadas normas prevé un desarrollo reglamentario que simplifique el régimen contable de los concejos, que no se ha producido.

Además, la Norma Foral 11/1995, de 20 de marzo, de Concejos del Territorio Histórico de exige en su artículo 40 que el movimiento económico anual de las Entidades Locales menores de Álava se refleje en un Libro de Cuentas que responda al modelo oficial y que se halle debidamente diligenciado.

El Libro de Cuentas del Concejo fue aprobado por la Asamblea Vecinal el 22 de marzo de 2018.

A.3 TASAS Y OTROS INGRESOS

La recaudación por tasas y otros ingresos durante 2018 muestra el siguiente desglose:

| Miles de euros | |
|---|-----------|
| CONCEPTO | Importe |
| Tasa por suministro domiciliario de agua potable y saneamiento..... | 2 |
| Suministro de energía eléctrica (*)..... | 39 |
| TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS | 41 |

(*) El Concejo, como titular de la red, suministra energía eléctrica a los vecinos.

La ordenanza fiscal reguladora de la tasa por suministro domiciliario de agua potable y saneamiento fue aprobada inicialmente por la Asamblea del Concejo, en sesión celebrada el día 27 de noviembre de 2016 y, cumplimentado el trámite exposición pública sin que se produjeran reclamaciones, la ordenanza definitivamente aprobada fue publicada en el BOTHA de 25 de enero de 2017.

Las tarifas anuales contempladas en la indicada ordenanza se resumen como sigue:

| | ABASTECIMIENTO | | SANEAMIENTO |
|--------------------------------------|--------------------------|--------------------------|-------------|
| | Uso doméstico | Uso industrial | |
| Cuota fija de servicio..... | 20 euros | 20 euros | 20 euros |
| Cuota de consumo: | | | |
| Hasta 100 metros cúbicos | 0,1 euros/m ³ | 0,1 euros/m ³ | |
| De 100 a 200 metros cúbicos..... | 0,5 euros/m ³ | 0,2 euros/m ³ | |
| A partir de 200 metros cúbicos | 1 euro/m ³ | 1 euro/m ³ | |

A.4 INGRESOS POR TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES

Durante el ejercicio 2018, los ingresos por transferencias y subvenciones corrientes y de capital han sido:

| CONCEPTO | Miles de euros | |
|---|----------------|------------|
| | CORRIENTES | CAPITAL |
| De la CAPV | - | 78 |
| AG: Construcción centro de día (*)..... | - | 78 |
| Del THA | 20 | 166 |
| DFA: Participación en tributos concertados: FFFEL | 20 | - |
| DFA: Tejado y equipamiento parcela 7 del polígono 2, C/ Real nº 21 y otros (**).... | - | 150 |
| DFA: Veredas 2018..... | - | 16 |
| Del municipio | 99 | - |
| Ayuntamiento de Lantarón: urbanización parcela 7 del polígono 2, C/ Real nº 21 (**) | 40 | - |
| Ayuntamiento de Lantarón: equipamiento parcela 7 del polígono 2, C/ Real nº 21 (**) | 20 | - |
| Ayuntamiento de Lantarón: gastos de funcionamiento y obras menores 2018 | 39 | - |
| TOTAL | 119 | 244 |

(*) Último pago correspondiente a la subvención nominativa consignada en los Presupuestos Generales de la CAPV para el ejercicio 2017, por 400.000 euros (ver A.7).

(**) Subvenciones nominativas.

A.5 INGRESOS PATRIMONIALES

El patrimonio del Concejo generó los siguientes ingresos en 2018:

| CONCEPTO | Miles de euros |
|--|----------------|
| | Importe |
| Alquiler de 3 viviendas y 2 fincas | 11 |
| Aprovechamiento cinegético del coto privado de caza..... | 3 |
| Gestión del centro social y explotación de frontón, txoko y bar del centro social..... | 2 |
| Otros menores..... | 1 |
| TOTAL INGRESOS PATRIMONIALES | 17 |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.6 ENDEUDAMIENTO

La evolución de la deuda en el ejercicio ha sido:

| Miles de euros | | | | | | |
|--------------------------------------|---------------------|-------|----------------------|--------|-----------|----------------------|
| | % interés | Vcto. | Saldo al 01/01/18 | Amort. | Nuevos | Saldo al 31/12/18 |
| Kutxabank, SA..... | Euribor 1año + 0,84 | 2028 | - | - | 50 | 50 |
| Regidor-Presidente..... | 0% | - | - | - | 30 | 30 |
| TOTAL ENDEUDAMIENTO DISPUESTO | | | - | - | 80 | 80 |

El Concejo recibió el préstamo del Regidor-Presidente en enero de 2018 sin que se estableciera un plazo para su devolución. Transcurridos dos años desde la indicada fecha no se había producido el reintegro.

A.7 COMPRAS DE BIENES CORRIENTES Y SERVICIOS E INVERSIONES

El detalle del capítulo 2 de gastos del Concejo es el siguiente:

| Miles de euros | |
|---|-----------|
| CONCEPTO | Gasto |
| Suministro de gas natural..... | 40 |
| Gastos asociados a la celebración de fiestas patronales..... | 7 |
| Servicios prestados por la Cuadrilla de Añana..... | 4 |
| Honorarios fiel de Fechos, cobrador de la luz y limpiadora..... | 4 |
| Gastos jurídicos..... | 3 |
| Otros menores..... | 20 |
| TOTAL | 78 |

Inversiones

En cuanto a las inversiones de 2018, se detallan a continuación:

| Miles de euros | |
|---|------------|
| CONCEPTO | Gasto |
| Construcción centro de día..... | 298 |
| Urbanización parcela 7 del polígono 2, C/ Real nº 21 (*)..... | 40 |
| Tejados del edificio de la parcela 7 del polígono 2, C/ Real nº 21..... | 39 |
| Servicios jurídicos..... | 32 |
| Compra de tractor..... | 21 |
| Equipamiento del edificio de parcela 7 del polígono 2, C/ Real nº 21 (*)..... | 20 |
| Otros menores..... | 74 |
| TOTAL | 524 |

(*) Gasto financiado con subvenciones del Ayuntamiento de Lantarón (ver A.4).

Los gastos de construcción del centro de día que figuran en el cuadro adjunto corresponden a la obra principal, adjudicada por la Asamblea Vecinal el 17 de agosto de 2017, cuyo coste total de ejecución ascendió a 437.867 euros, parte del cual, por 140.088

euros, había sido objeto de registro en 2017. Para la financiación de la mencionada construcción el Concejo contaba con una subvención nominativa del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, consignada en los Presupuestos Generales de la CAPV para el ejercicio 2017, por 400.000 euros (ver A.4).

Gastos devengados y no registrados

A 31 de diciembre de 2018 había gastos devengados pendientes de pago y de registro, por importe de 115.499 euros, según el siguiente desglose:

| Miles de euros | |
|---|------------|
| CONCEPTO | Gasto |
| Obras menores 2018: Paseo de la Paraguela | 20 |
| Veredas 2018: obra calle del Monte..... | 14 |
| Líneas de alumbrado público y elementos eléctricos | 30 |
| Equipación edificio de la parcela 7 del polígono 2, C/ Real nº 21 | 51 |
| TOTAL | 115 |

A.8 PATRIMONIO

El Concejo realizó en 2002 un inventario de sus bienes, no valorado, que fue aprobado el 31 de octubre y sometido a exposición pública mediante inserción de anuncio en el BOTHA de 30 de noviembre del propio año.

Dicho inventario no ha sido objeto de actualización posterior. Considerando únicamente el ejercicio fiscalizado, se ha concluido la construcción del centro de día (ver A.7) y se ha adquirido una finca (ver párrafos siguientes), sin que ninguno de los indicados bienes figure en el inventario.

Adquisición de la parcela 7 del polígono 2 de Fontecha, señalada como calle Real número 21

En el año 2003, una fundación de beneficencia particular vendió 4 fincas a una sociedad mercantil a cambio de una cantidad en metálico y de la construcción de una residencia para la tercera edad en parcela a elegir por la fundación en Fontecha.

Con motivo de la crisis económica, la mercantil no ejecutó la obra comprometida y se negó al requerimiento de la fundación de devolución de las fincas, alegando que el incumplimiento se había producido por causas ajenas a su voluntad.

La fundación decidió instar la vía judicial para forzar la devolución de las fincas, a pesar de que no disponía de recursos para afrontar el coste del procedimiento. La Asamblea Vecinal del Concejo de Fontecha, en reunión celebrada el 5 de febrero de 2017, aceptó la propuesta de la fundación de hacer frente a los gastos judiciales, presupuestados en 70.000 euros, a cambio de la adjudicación de la parcela 7 del polígono 2 de Fontecha, señalada como calle Real número 21.



Finalmente los gastos jurídicos abonados por el Concejo ascendieron a 65.151 euros y, mediante escritura de reconocimiento de deuda y dación en pago de 1 de marzo de 2018, la Fundación cedió y transmitió el pleno dominio de la finca anteriormente descrita a la Junta Administrativa de Fontecha.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Beato Tomás de Zumárraga, 69
01008 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 016000 www.tvcp.org